

MUNGIAKO UDALA

IRAGARKIA, Laukariz auzoko Berreagamendi urbanizazioa arautzen duten ordenantzen aldaketari hasierako onarpena emateari buruzkoa. 7447

Pribatuen Iragarkiak**JAZKI/14 SOCIEDAD COOPERATIVA**

IRAGARKIA, Jazki/14 S. Coop. sozietatea likidatzeari buruzkoa. 7448

Xedapen Orokorrak**OSASUN SAILA****Zk-2459**

AGINDUA, 2002ko martxoaren 15ekoa, Osasun sailburuarena, jantoki kolektiboak eta azken kontsumitzailearentzako janari prestatuak egiten dituzten establezimendu ez industrialak sailkatzeko eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan bete behar dituzten neurri sanitarioak finkatzeko dena.

Argitaratu berri den 3484/2000 Errege Dekretuak, abenduaren 29ak, prestatutako janariak egiteko, banatzeko eta merkaturatzeko higie-neurriak ezartzen dituenak, orain arteko lege-markoa aldatu du elikadura-establezimendu desberdinei eta, horien artean, jantoki kolektiboetarako dagokienez. Arau horrek elikagaiei buruzko higie-neurriak ezartzen dituen 2207/1995 Errege Dekretuan jadanik jasotzen ziren hainbat higie-neurri eta kontrol printzipio orokor berresten ditu eta, gainera, Europako Batasunak emandako hainbat xedapenetan emandako artezpideak eta Codex Alimentarius-ean ezarritako arauak ere biltzen ditu, betiere, prestatutako janariak egiteko eta saltzeko era berriei egokitzuz. Arauak, ordea, oinarritzeko alderdiak baino ez ditu jasotzen eta, beraz, bertan ezartzen diren eskakizunak zehaztu egin behar dira, aplikazioa beti berdina izan dadin. Hortaz, agindu honek zehaztu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko jantoki kolektiboak eta janari prestatuak egiten dituzten establezimendu ez industrialek bete beharreko eskakizunak.

Bestalde, epidemiologia-datuak, sektore honen garrantzia erakustez gain, azaleratu egiten dituzte elikaduraren ondorioz sortzen diren toxiinfekzio-agerraldiak

AYUNTAMIENTO DE MUNGIA

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de la Modificación de las Ordenanzas Regulatoras de la Urbanización Monte Berriaga en Laukariz. 7447

Anuncios Particulares**JAZKI/14 SOCIEDAD COOPERATIVA**

ANUNCIO de la liquidación de Jazki/14 S. Coop. 7448

Disposiciones Generales**DEPARTAMENTO DE SANIDAD****Nº-2459**

ORDEN de 15 de marzo de 2002, del Consejero de Sanidad, por la que se establecen las condiciones sanitarias y la clasificación de los comedores colectivos y de los establecimientos no industriales de elaboración de comidas preparadas para el consumidor final en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La reciente publicación del Real Decreto 3484/2000, de 29 de diciembre, por el que se establecen las normas de higiene para la elaboración, distribución y comercio de comidas preparadas, modifica el marco legal preexistente relativo a diferentes tipos de establecimientos alimentarios, entre ellos los comedores colectivos. Esta norma recoge principios generales de higiene y control procedentes del Real Decreto 2207/1995, que establece las normas de higiene de productos alimenticios, y da cabida a nuevas directrices emanadas de disposiciones comunitarias y normas del Codex Alimentarius, adaptándolas a nuevas modalidades de elaboración y venta de comidas preparadas. Es, sin embargo, una norma que recoge aspectos básicos y que, como tal, precisa una mayor concreción de sus requisitos para asegurar una aplicación totalmente uniforme. Esta concreción, en el ámbito de los comedores colectivos y los establecimientos de platos preparados no industriales ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, se desarrolla en la presente Orden.

Por otro lado, los datos epidemiológicos indican la importancia sanitaria de este sector, y apuntan los principales factores de riesgo que contribuyen a la aparición

eragiten dituzten arrisku-faktore nagusiak. Hortaz, beharrezkoa da araudi sanitarioaren errealitatea dauden arrisku-mailei eta prestatutako janariak egiteko jardueramotei egokitzea.

Kontuan hartu behar da, halaber, teknologiaren eta sektorearen berezko bilakaeraren ondorioz, prestatutako janariak maneiatzeko, erabiltzeko eta saltzeko eraberririak sortu direla eta, ondorioz, beharrezkoa dela merkatuaren aldaketei egokitu ahal zaizkion arauak egitea.

Agindu honen bitartez, arrisku sanitarioaren arabera sailkatzen dira sukaldaritza kolektiboko jarduerak, eta talde bakoitzak baimena lortzeko bete behar dituen eskakizunak finkatzen dira. Arriskuaren arabera sailkapen honek, gainera, bide ematen du kategoria bateko gutxieneko eskakizunak bete ezin dituen establezimendu batek arrisku gutxiago eta, beraz, eskakizun gutxiago dituen beste kategoria batean sar dadin. Hortaz, ez luke bere jarduera utzi beharko, hainbat lege-xedapenek eskatzen duten bezala, nahikoa izango bailuke jarduera egokitzea.

Sailkapenak, merkataritzakoei ez ezik, erakundeen eta elkarteen establezimenduei ere eragiten die. Bertan instalazio-arau eta lan-ildo orokorrak ezartzen dira guztientzat eta, gainera, eskakizun bereziak jardueraren eta arrisku-mailaren arabera. Hortaz, establezimendu bakoitzari eskakizun-maila bat ezartzen zaio, dituen behar sanitario berezien arabera.

Ondorioz, Autonomia Estatutuaren 18.1 artikulua barne-osasunaren alorreko oinarritzako legeak garatzeko eta gauzatzeko aitortzen dituen eskumenak erabiliz eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuaren 3. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien jarduera, industria eta establezimenduei buruzko irailaren 17ko 223/1996 Dekretuaren azken xedapenetatik hirugarrena kontuan hartuz, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Helburua eta aplikazio-eremua.

1.— Agindu honen helburua da jantoki kolektiboek, erakundeen jantokiek eta prestatutako janariak egiten dituzten establezimendu ez industrialek bete behar dituzten eskakizun sanitarioak ezartzea eta horiek sailkatzera, irailaren 17ko 223/1996 Dekretuan jardunean jartzeko arautzen den baimena lortzeari begira.

2.— Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko establezimendu guztiei aplikatuko zaie, baldin eta horien jarduera prestatutako janariak egitea edo zerbitzatzea baldin bada, dela establezimenduan bertan hartzeko,

de brotes de toxiinfecciones alimentarias. Esto refuerza la necesidad de adaptar la realidad normativa sanitaria a los diferentes niveles de riesgo implícitos y a los distintos tipos de actividades de elaboración de comidas preparadas.

También ha de tenerse en cuenta que la propia evolución tecnológica y sectorial hace que existan nuevas modalidades de manipulación, tratamiento y venta de platos preparados y elaborados, que requieren de unas herramientas normativas adaptables a las variaciones del mercado.

Mediante la presente Orden se establece una clasificación de las diferentes actividades de restauración colectiva de acuerdo a su riesgo sanitario, estableciendo para cada uno de los grupos los requisitos higiénico-sanitarios que deben cumplir para poder ser autorizados. Esta clasificación en función del riesgo permite además que los establecimientos que no pueden alcanzar los mínimos de una categoría puedan buscar acomodo en otra de menor riesgo, y por tanto, de menores exigencias, no obligando, como ocurre con muchas disposiciones legales, al cese de su actividad, sino a su readaptación.

Afecta tanto a establecimientos de carácter comercial como a institucionales o sociales, estableciendo unos requisitos generales de instalación y de pautas de trabajo que han de cumplir todos, más unos requisitos específicos en función de la actividad desarrollada y su nivel de riesgo, adaptando claramente de esta forma el nivel de exigencia a las necesidades sanitarias específicas de cada establecimiento.

En su virtud, en ejercicio de la competencia de desarrollo y ejecución de la legislación básica en materia de sanidad interior que reconoce el artículo 18.1 del Estatuto de Autonomía y de conformidad con lo establecido en el artículo 26.4 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, artículo 3 del Decreto 268/2001, de 6 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad y de lo establecido en la disposición final tercera del Decreto 223/1996, de 17 de septiembre, de las actividades, industrias y establecimientos alimentarios en la Comunidad Autónoma del País Vasco,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto y ámbito de aplicación.

1.— Es objeto de la presente Orden establecer las condiciones sanitarias que han de reunir los comedores colectivos e institucionales, y los establecimientos no industriales de elaboración de comidas preparadas, así como su clasificación a efectos de obtener la autorización sanitaria de funcionamiento regulada en el Decreto 223/1996, de 17 de septiembre.

2.— La presente Orden será aplicable a todos los establecimientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de carácter público o privado, social o comercial, permanentes o de temporada, cuya actividad sea la de

dela etxe partikularrei, azken kontsumitzaileei, saltzeko edo eramateko. Berdin da establezimendua publiko edo pribatua den, soziala edo komertziala, iraunkorra de denboraldi baterakoa.

3.- Kanpo geratuko dira indarrean dagoen legeriarren arabera Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean egon behar duten establezimenduak eta elikagaiak prestatzeko eta kontsumitzeko eremu pribatuak (txokoak eta antzekoak).

2. *artikulua*.– Definizioak.

Agindu honetan araututakoari dagokionez, definizio hauek ematen dira:

1.– Prestatutako janariak: abereetatik edo barazkie-tatik datozen elikagaiak dira, gordinik, kozinaturik edo aurrekozinaturik prestatuta, berdin delarik baimendutako substantzia gehigarriak dituzten edo apailatuta dauden. Ontziratuta edo gabe aurkez daitezke, eta azken kontsumitzaileak kontsumitzeko prest, bai zuzenean, bai berotu edo sukaldaritzako tratamendu gehigarri bat eman ondoren.

2.– Establezimendua: janari prestatuak egin, moneiatu, ontziratatu, gorde, zerbitzatu edo saltzen diren lokala edo instalazioa, iraunkorra zein aldi baterakoa. Berdin da bertan zerbitzua dagoen ala ez.

3.– Jantoki kolektiboa: bertan hartzen diren janari edo edariak ematen dituen establezimendua. Berdin da sukalde duen ala ez eta independentea edo enpresa, zentro edo erakunde batena den, bere jarduera horienaren osagarri delarik.

4.– Erakunde baten jantokia: enpresa, zentro edo erakunde batena den jantoki kolektiboa, bere jarduera horienaren osagarri delarik.

5.– Prestatutako janariak egiten dituen establezimendu ez industrialak: egiten diren lekutik kanpo kontsumitzen diren janari prestatuak banatzen dituen establezimendua. Janaria azken kontsumitzaileari eman ahal zaio, lokaletik kanpoan jan dezan, edo etxera eramanez ahal zaio.

6.– Sukaldetxoa: kanpoan egindako janari prestatuak ematen dituzten jantoki kolektiboetan, janariak hotz ala bero gordetzeko, beren onera ekartzeko (hala bada-gokio), plateretan jartzeko eta zerbitzatzeko lanak egiten diren lokala.

3. *artikulua*.– Establezimenduen sailkapena.

Establezimenduak taldeka sailkatuko dira jardueraren eta arriskuaren arabera. Hona hemen sailkapena:

1) 0 taldea: janariak prestatzen ez dituzten establezimenduak, edariak eta/edo janariak zerbitzatzeko dituztenak. Baimena duten industriek egindako produktuak

elaborar y/o servir comidas preparadas para su consumo en el propio establecimiento y/o venta y/o suministro a domicilios particulares, a los consumidores finales.

3.– Quedan excluidos aquellos establecimientos que, conforme a la normativa vigente, requieran ser incluidos en el Registro General Sanitario de Alimentos, así como aquellos en que los ámbitos de elaboración y de consumo sean privados (txokos y asimilables).

Artículo 2.– Definiciones.

A efectos de lo regulado por la presente Orden, se entenderá por:

1.– Comida preparada: Elaboración culinaria resultado de la preparación en crudo o del cocinado o del precocinado, de uno o varios productos alimenticios de origen animal o vegetal, con o sin la adición de otras sustancias autorizadas y, en su caso, condimentada. Podrá presentarse envasada o no y dispuesta para su consumo, bien directamente, o bien tras un calentamiento o tratamiento culinario adicional, por los consumidores finales.

2.– Establecimiento: local o instalación permanente o temporal donde se elaboran, manipulan, envasan, almacenan, sirven o venden comidas preparadas, con o sin servicio en el mismo, para su consumo directo por el consumidor final.

3.– Comedor colectivo: aquel establecimiento cuya actividad sea facilitar comidas y/o bebidas que en el mismo se consumen, incluyendo tanto los dotados de cocina propia como los que carecen de la misma y pudiendo tener entidad propia e independiente o formar parte de empresas, centros o instituciones como actividad accesoria de éstos.

4.– Comedores institucionales: comedores colectivos que forman parte de empresas, centros o instituciones como actividad accesoria de éstos.

5.– Establecimiento de elaboración de platos preparados no industriales: aquel establecimiento cuya actividad sea facilitar comidas preparadas que no se consumen en el mismo local donde se elaboran, pudiendo ser vendida al consumidor final para su consumo fuera del establecimiento de elaboración, o suministrada al mismo en su domicilio particular.

6.– Oficio: en comedores colectivos que reciben comidas preparadas no elaboradas en los mismos, local destinado exclusivamente a la realización de actividades de mantenimiento de las comidas en caliente o en frío, regeneración (si procede), emplatado y/o servicio de dichas comidas.

Artículo 3.– Clasificación de los establecimientos.

Se establece la siguiente clasificación por grupos de establecimientos, según su actividad y nivel de riesgo:

1) Grupo 0: Establecimientos que no elaboran alimentos, sino que sólo sirven bebidas y/o alimentos. Se incluirán en este grupo los establecimientos que expo-

erakusten eta zerbitzatzen dituzten establezimenduak sartzen dira talde honetan.

2) I taldea: berehala kontsumitzeko janariak egiten dituzten jantoki kolektiboak, baina berariazko lokal edo eremuetan jatordu osoak zerbitzatzen ez dituztenak.

Talde honetan sartuko dira pintxoak edo plater konbinatuak egiten dituzten tabernak, pizzeriak, ogitarteko eta hamburguesategiak, kafetegiak eta antzekoak.

Arrisku gutxiko menu errazak kantitate txikitan eta berehala kontsumitzeko egiten dituzten jantoki kolektiboak ere talde honetan sartuko dira. Nahitaezko baldintza izango da lehengai galkorren hornidura eguneko kontsumoari doitzea eta baldintza hori astean zehar eta edozein urte-sasoitan betetzea.

Antzeko janari prestatuak egin eta azken kontsumitzaileari saltzen dizkioten establezimendu ez industrialak. Janariok lokalean bertan sal daitezke, edo bezeroaren etxera eramanez.

Dena dela, eskumena duen osasun-agintaritzak horrelako establezimendu batek, bere ezaugarriengatik, arrisku sanitario handiagoa duela uste badu, II. taldean sartzea erabaki dezake.

3) II taldea: askotariko menu edo otordu osoak prestatzen dituzten jantoki kolektiboak, janariak jatorri eta izaera askotako osagaiz eginak badaude, era askotan prestatzen badira eta jantoki edo berariaz egokitutako leku batean zerbitzatzen badira.

Talde honetan sartuko dira menu edo karta duten osalaritza-establezimenduak eta parekagarriak.

Antzeko janari prestatuak egin eta azken kontsumitzaileari saltzen dizkioten establezimendu ez industrialak. Janariok lokalean bertan sal daitezke, edo bezeroaren etxera eramanez.

4) III. taldea: Prestaketari, osagaiei, hedaturari eta arrisku sanitarioei dagokienez, askotariko produktuak prestatzen dituzten jantokiak, aurreko taldean bezala, baina kantitate handitan, hein handi batean alde zuritik prestatuak eta bazkaltiar askorentzat batera (150 bazkaltiarrentzat baino gehiagorentzat).

5) Erakundeetako jantokiak: jarduteko baimen sanitarioa eskuratzeari dagokionez, honela sailkatzen dira: eskoletako jantokiak, egoitzetako jantokiak, ospitale eta kliniketako sukaldeak, enpresetako jantokiak eta bestelako erakundeen jantokiak.

4. artikulua.— Higiene eta sanitate eskakizunak. Eskakizunen sailkapena.

Agindu honetan arautzen diren establezimendu-motek bete beharreko eskakizunak honela sailkatuko dira:

1.— Eskakizun orokorrak, establezimendu guztiek bete beharrekoak:

1.1.— Instalazioei buruzkoak.

nen y sirven productos elaborados por industrias autorizadas.

2) Grupo I: Comedores colectivos que elaboran alimentos para su consumo inmediato, pero sin servicio de comidas completas en locales o zonas al efecto.

Se incluirán en este grupo bares con elaboración de pinchos y/o platos combinados, pizzerías, hamburgueserías, bocaterías, cafeterías y asimilables.

Asimismo, los comedores colectivos que elaboren menús simples de bajo riesgo en pequeñas cantidades, para su consumo inmediato estarán en este grupo, siendo el aprovisionamiento de materias primas precederá ajustadas a su consumo diario y manteniendo estas condiciones estables a lo largo de la semana y en cualquier época del año.

Establecimientos de platos preparados no industriales que elaboran y venden a consumidor final, en el propio local o mediante suministro a domicilio particular, una gama de alimentos similar.

No obstante, se podrá determinar la inclusión de un establecimiento en el Grupo II, si por sus características específicas supone un riesgo sanitario mayor, a criterio de la autoridad competente.

3) Grupo II: Comedores colectivos que elaboran y sirven menús o comidas completas, muy variadas, con ingredientes de diversa naturaleza y origen, que sufren preparaciones también variadas, y con servicio de los mismos en un comedor o zona habilitada al efecto.

Se incluirán establecimientos de hostelería con menú y/o carta, y asimilables.

Establecimientos de platos preparados no industriales que elaboran y venden a consumidor final, en el propio local o mediante suministro a domicilio particular, gamas de alimentos similares.

4) Grupo III: Comedores colectivos que elaboran productos muy variados (en cuanto a preparación, ingredientes, coberturas y nivel de riesgo sanitario), como en el grupo anterior, pero en grandes cantidades, con preparación previa en gran parte y a gran número de comensales simultáneamente (Capacidad superior a 150 comensales).

5) Comedores institucionales: Éstos se clasificarán, a efectos de su autorización sanitaria de funcionamiento, como comedores escolares, comedores de residencias, cocinas de hospitales o clínicas, comedores de empresa, y otros comedores institucionales.

Artículo 4.— Requisitos higiénico-sanitarios. Clasificación de requisitos.

Los requisitos higiénico-sanitarios para los diferentes grupos de establecimientos regulados por la presente Orden se dividirán en:

1.— Requisitos generales, que deberán cumplir todos los establecimientos:

1.1.— Requisitos referidos a instalaciones.

1.2.– Lan-jardunari buruzkoak.

2.– Establezimenduek jardueraren arabera bete behar dituzten berariazko eskakizunak:

2.1.– Ostalaritza alorreko jantoki kolektiboek jarduera-taldearen arabera bete beharreko eskakizunak (0 taldetik III.era).

2.2.– Prestatutako janariak egiten dituzten establezimendu ez industrialek jarduera-taldearen arabera bete beharreko eskakizunak (I eta II taldeak).

2.3.– Erakundeetako jantoki kolektiboek bete beharreko eskakizunak.

Establezimendu guztiek bete beharko dituzte eskakizun orokorrak (instalazioei eta lan jarduerari buruzkoak) eta jardueraren arabera dagozkien berariazko eskakizunak.

Jarduera-talde bakoitzean baimendutako establezimenduek (ostalaritzako 0 taldetik III.era eta prestatutako janari ez industrialen I. eta II. taldeak) beren taldeko jarduerak ez ezik, beheragoko taldekoak ere egin ahal izango dituzte. Ezin izango da inolako jarduerarik egin berariazko baimenik eduki ezik.

5. artikulua.– Higiene eta sanitate eskakizun orokorrak.

Agindu honen eraginpean dauden establezimendu guztiek I. eranskinean ezarritakoaren arabera bete beharko dituzte higiene eta sanitate eskakizun orokorrak, hau da, instalazioei eta lan-jardunari buruzkoak.

6. artikulua.– Ostalaritza-taldeko jantoki kolektiboek bete beharreko higiene eta sanitate eskakizun bereziak, jarduera-taldearen arabera (0 taldetik III.era).

Ostalaritza-alorreko jantoki kolektiboek II. eranskinean ezarritako higiene eta sanitate eskakizun bereziak beteko dituzte, jarduera-taldearen arabera.

7. artikulua.– Prestatutako janariak egiten dituzten establezimendu ez industrialek bete beharreko higiene eta sanitate eskakizun bereziak, jarduera-taldearen arabera (I eta II taldeak).

Prestatutako janariak egiten dituzten establezimendu ez industrialek III. eranskinean ezarritako higiene eta sanitate eskakizun bereziak beteko dituzte, jarduera-taldearen arabera.

8. artikulua.– Erakundeetako jantoki kolektiboek jarduera-motaren arabera bete beharreko higiene eta sanitate eskakizun bereziak.

Erakundeetako jantoki kolektiboek IV. eranskinean zehaztutako higiene eta sanitate eskakizun bereziak bete behar dituzte.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Jardunean hasteko baimen sanitarioei dagokienez, Agindu hau indarrean jarri baino lehen aurkeztutakoak

1.2.– Requisitos referidos a prácticas de trabajo.

2.– Requisitos específicos, que deberán cumplir los establecimientos según su actividad:

2.1.– Requisitos, según grupo de actividad, para comedores colectivos del sector hostelero (Grupos 0 a III).

2.2.– Requisitos, según grupo de actividad, para establecimientos de elaboración de platos preparados no industriales (Grupos I a II).

2.3.– Requisitos para comedores colectivos institucionales.

Cada establecimiento ha de cumplir los requisitos generales (de instalaciones y de prácticas de trabajo) pertinentes y todos los requisitos específicos que le sean de aplicación en función de su actividad.

Los establecimientos autorizados en cada grupo de actividad (del 0 al III en hostelería y del I al II en platos preparados no industriales) podrán realizar las actividades contempladas para dicho grupo, además de las de los grupos anteriores. No se podrán realizar actividades para las que no se cuente con autorización expresa.

Artículo 5.– Requisitos higiénico-sanitarios generales.

Todos los establecimientos afectados por esta Orden cumplirán los requisitos higiénico-sanitarios generales, de instalaciones y de prácticas de trabajo, de acuerdo a lo establecido en el Anexo I.

Artículo 6.– Requisitos higiénico-sanitarios específicos, según grupo de actividad, para comedores colectivos del sector hostelero (Grupos 0 a III).

Los comedores colectivos del sector hostelero de los diferentes grupos de actividad cumplirán los requisitos higiénico-sanitarios específicos establecidos en el Anexo II.

Artículo 7.– Requisitos higiénico-sanitarios específicos, según grupo de actividad, para establecimientos de elaboración de platos preparados no industriales (Grupos I a II).

Los establecimientos de elaboración de platos preparados no industriales de los diferentes grupos de actividad cumplirán los requisitos higiénico-sanitarios específicos establecidos en el Anexo III.

Artículo 8.– Requisitos higiénico-sanitarios específicos, según tipo de actividad, para comedores colectivos institucionales.

Los comedores colectivos institucionales cumplirán los requisitos higiénico-sanitarios específicos establecidos en el Anexo IV.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las solicitudes de autorización sanitaria de funcionamiento presentadas antes de la entrada en vigor de

araudi honetan xedatutakoaren arabera izapidetu eta ebatziko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lebena.— Osasun Publikoko zuzendariari eskumena ematen zaio Agindu hau gauzatzeko eman beharreko ebazpenak eman eta hartu beharreko neurriak har ditzan.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean Agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko martxoaren 15a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLAN IRIBAR.

I. ERANSKINA

Establezimendu guztiek bete beharreko higie eta sanitate eskakizun orokorrak:

1.— Instalazioei buruzko eskakizunak:

1.1.— Janariak maneiatzeko erabiltzen diren lokalen antolamendu orokorra, diseinua, eraikuntza eta neurriak egokiak izango dira maneiatze-jardueretarako. Horrela, zailagoa izango da janarien arteko kontaminazio gurutatuak gertatzea.

1.2.— Janariak maneiatzeko erabiltzen diren lokale-tako hormak, zoruak eta sabaiak leunak, iragazgaitzak eta garbitzeko eta desinfektatzeko errazak izango dira. Biltegietan, nahikoa izango da garbitzeko errazak izatea eta hautsa eta zikinkeria ez pilatzeko modukoak izatea.

1.3.— Janariak maneiatzeko lokaletako zoruak ez la-
baingarriak izango dira.

1.4.— Lokal guztietan sistema egokiak egongo dira aireztapenerako.

1.5.— Janariak maneiatzeko lokaletan sukaldaritzarako bero-iturriak badaude (sukaldea, plantxak, frijigailuak etab.), gainean gasak eta keak behar bezala erauzteko kanpai filtrodunak jarriko dira. Gainera, gaiari buruzko beste arauak ere bete beharko dira.

1.6.— Intsektuen kontrako sistemak egongo dira, kimikoez bestelakoak.

1.7.— Janariak prestatzeko eta garbiketa egiteko, behar beste edateko ur korrante hotz eta beroa izango dute.

1.8.— Ontzi-garbigailua edo/eta edalontzi-garbigailua izango dute, jardueraren arabera. Garbigailu horiek tresnak eta ontziak behar bezala garbitzeko behar den temperatura lortuko dute.

la presente Orden se tramitarán y resolverán de acuerdo con lo establecido en esta normativa.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta al Director de Salud Pública para dictar las resoluciones necesarias y adoptar las medidas oportunas para la ejecución de la presente Orden.

Segunda.— La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de marzo de 2002.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLAN IRIBAR.

ANEXO I

Requisitos higiénico-sanitarios generales, de todos los establecimientos:

1.— Requisitos referidos a instalaciones:

1.1.— La disposición de conjunto, el diseño, la construcción y las dimensiones de los locales donde se manipulen alimentos serán de tales características que permitan unas adecuadas prácticas de manipulación, de forma que sea difícil que se produzcan contaminaciones cruzadas entre alimentos.

1.2.— Las paredes, suelos y techos de los locales de manipulación de productos alimenticios serán lisos, impermeables, y de fácil limpieza y desinfección. En los locales de almacenamiento bastará con que sean fáciles de limpiar y eviten la acumulación de polvo y suciedad.

1.3.— Los suelos de los locales de manipulación de alimentos serán antideslizantes.

1.4.— Se dispondrá de sistemas de ventilación adecuada y suficiente en todos los locales.

1.5.— Los locales de manipulación de alimentos en que haya fuentes de calor para cocinado (cocina, plancha, freidora, etc.), dispondrán sobre ellas de campanas extractoras de gases y humos, con filtros, que consigan una extracción adecuada y suficiente, sin perjuicio del cumplimiento de otras normativas al respecto.

1.6.— Se contará con sistemas de carácter no químico para evitar la presencia de insectos.

1.7.— Dispondrán de agua potable corriente fría y caliente, en cantidad suficiente para las labores de preparación de alimentos y limpieza.

1.8.— Dispondrán de lavavajillas y/o lavavasos, según su actividad, que garanticen una temperatura eficaz de limpieza de los útiles y vajilla.

1.9.— Tresnak, makinak eta janariak maneiatzeko gainazalak garbitzeko eta desinfektatzeko errazak izango dira, baita iragazgaitzak, korrosioak jotzen ez dituenetakoak, herdoilgaitzak eta ez-toxikoak.

1.10.— Beharrezko denean, tamaina nahikoa duten hozkailu-ekipoak izango dituzte. Hozkailu horiek kanpotik kontrolatu ahal izango dira: produktu hoztuen kasuan, 0 eta 8.ºC bitarteko tenperatura bermatzeko moduan eta produktu izoztuen kasuan, berriz, -18.ºC-tik beherako tenperatura.

1.11.— Biltegi edo jakitokitarako lokala izango du te.

1.12.— Establezimenduen barruan behar bezala erakitako eta kokatutako bitarteko eta instalazioak egongo dira, produktuak behar bezala kontserbatzen direla bermatzeko, bai tenperatura, higiene eta garbiketari dagokionez, bai kontaminazioa saihesteari dagokionez, kontuan hartuta kontaminazioa era askotako gaien ondoren edo horiekin kontaktuan egoteagatik sor daitekeela: edozein eratako hondakinekin edo ur hondakinekin; ke, zikinkeria eta gai edo gorputz toxikoekin eta intsektu, karraskari eta bestelako animaliekin.

Bitarteko eta instalazio horiek ingurumen-baldintza egokiak bermatuko dituzte, produktuek asaldurarik, narriadurarik edo berezko ezaugarrien ohiz kanpoko alaketarik jasan ez dezaten.

2.— Lan-jarduerari buruzko eskakizunak.

2.1.— Tenperaturak: tenperatura kontrolatupean egon behar duten janariak tenperatura hauetan egongo dira (kontserbatu, gorde, jendaurrean jarri...):

- Hoztuta eduki behar diren janariak, hogeita lau ordu baino gehiago iraun behar badute, 0 eta 4.ºC bitartean.
- Hoztuta eduki behar diren janariak, hogeita lau ordu baino gutxiago iraun behar badute, 0 eta 8.ºC bitartean.
- Janari izoztuak -18.ºC-tan edo hotzago.
- Bero eduki behar diren janariak 65.ºC-tan edo be-roago.

Tratamendu termikoa izan behar duten janariak, hotz gorde edo erakutsi behar badira, tratamendu termikoa amaitu eta bi ordu igaro aurretik, 8.ºC-tik behera hoztuko dira.

Janariak izozteko, azkar izozten duen ekipoa behar da: 0.ºC-tik -10.ºC-ra bi ordutan baino lehenago.

Dena dela, arrazoi teknologikoak direla eta, establezimenduetako arduradunek muga horiek gainditu ahal izango dituzte, betiere, prestatutako janarien segurtasuna eta osasungarritasuna bermatuta dagoela ziurtatzen duten zientzia-ebidentziak badaude eta eskumena duen organoak baimena ematen badu.

1.9.— Los materiales de útiles, maquinaria y superficies de manipulación serán fáciles de limpiar y desinfectar, impermeables, resistentes a la corrosión, inoxidables y atóxicos.

1.10.— Cuando sea necesario, dispondrán de equipos frigoríficos con volumen suficiente que permitan garantizar y controlar desde el exterior temperaturas de 0 a 8.º C en el caso de productos refrigerados, o inferiores a - 18.º C en el caso de productos congelados.

1.11.— Dispondrán de local de almacén o despensa.

1.12.— Contarán con medios e instalaciones adecuados en su construcción y situación dentro de los establecimientos para garantizar la conservación de sus productos en correctas condiciones de temperatura, higiene, limpieza y no contaminación por la proximidad o contacto con cualquier clase de residuos o aguas residuales, humos, suciedad, sustancias tóxicas, o materias o cuerpos extraños, así como la presencia de insectos, roedores u otros animales.

Estos medios e instalaciones permitirán garantizar el mantenimiento de las adecuadas condiciones ambientales, de manera que los productos no puedan sufrir alteraciones, deterioros o cambios anormales en sus características.

2.— Requisitos referidos a prácticas de trabajo:

2.1.— Temperaturas: Los alimentos que requieran mantenimiento a temperatura controlada, se mantendrán (conservarán, almacenarán, expondrán al público, etc.) a temperaturas de:

- De 0 a 4.º C, para alimentos que requieran refrigeración, con vida útil mayor a 24 horas.
- De 0 a 8.º C, para alimentos que requieran refrigeración, con vida útil menor a 24 horas.
- Inferior o igual a - 18.º C, para alimentos congelados.
- Superior o igual a 65.º C, para alimentos que se mantengan en caliente.

Los productos sometidos a tratamiento térmico que se vayan a conservar o exponer en frío, deberán enfriarse hasta menos de 8.º C en menos de 2 horas tras el final del tratamiento térmico.

Para congelar productos alimenticios se dispondrá de un equipo que permita una congelación rápida: De 0 a -10.º C en menos de 2 horas.

No obstante, por razones tecnológicas, los responsables de los establecimientos podrán superar estos límites de tiempo/temperatura, siempre que exista evidencia científica que garantice la seguridad y salubridad de las comidas preparadas, y se autorice por la autoridad competente.

2.2.— Bateriaezinak diren lehengaiak eta tenperatura kontrolatuan gorde behar diren bitarteko eta azken produktuak behar bezala bereizita gordeko dira ganbaretan, horien arteko kontaminazio gurutzatua saihesteko.

2.3.— Toxikoak izan daitezkeen gaiak (detergenteak, desinfektatzaileak...) eta garbiketarako tresnak toki bereiz batean gordeko dira, janariak kontaminatzeko arriskurik ez dagoen leku batean, eta behar bezala identifikatuko dira.

2.4.— Baxera eta lan-tresnak berariazko leku batean gordeko dira, kontaminaziotik babestuta.

2.5.— Zaborra biltzeko ontzi egokiak erabiliko dira, garbitzeko eta desinfektatzeko errazak eta estalkia irekitzeko eskuzkoa ez den eragingailua dutenak. Zaborra aldiro-aldiro aterako da, behar denean.

